



1. UNITATE DIDAKTIKOA

PORNOGRAFIA GAUR EGUNGO HEZIKETA SEXUALA AL DA?



porno eskola



www.pornoeskola.com



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

HAZIAK

1. UNITATE DIDAKTIKOA

PORNOGRAFIA GAUR EGUNGO HEZIKETA SEXUALA AL DA?

EDUKIAK

Pornografia erabiltzearekin alde egon edo ez, nerabeek erabiltzen dutela ukaezina da. Interneten bidez pornora heltzeko daukaten erraztasunak ezagutza tresna bihurtzen du. Hala ere, bertan erakusten diren ereduak ez dira egokiak ikuspegi pedagogiko batetik.

Horregatik, bere erabilera berrezituko dugu eta bere edukietaz jabetuko gara sexualitatearen esparrurako tresna hezitzaile bihurtuz. Garrantzitsua da eduki horiek erabiliko dituzten pertsonen pedagogikoak direnak eta ez direnak bereiztea.

Unitate didaktiko honetan proposatzen diren jarduerak, parte hartzaileak ezagutzea dute helburu. Horrela, pornografiaren inguruan dituzten ezagutzak eta usteak (unitate honen gai orokorra) jakinda, gure lan esparrua murriztuko dugu. Unitate hau, hurrengo unitateak jorrazteko sarrera bezala balio du.

HELBURUAK

- Pornografia heziketa sexualerako tresna bezala erabiltzea
- Pornografiaren erabiltzaileak berrezitzea
- Eduki pornografikoetaz jabetu eta material pedagogiko bihurtu

1. JARDUERA

ZER DA PORNOGRAFIA?

HELBURUAK

Partehartzaileek pornografiaren inguruan duten iritzia ezagutzea da. Horregatik, ideia ekaitz bat egitea proposatzen da, taldeak duen iruditeria nola landu jakiteko.

MATERIALA

- Fitxa: *Zer da pornografia?*
- Arbela
- Boligrafoak
- Post-it
- Aulkiak

DINAMIKA

Taldeak, borobilean eserita, minutu batzuk izango ditu Post-it batean pornografiari buruz pentsatzen duena idazteko; bai definizio bat, bai hitzak. Guztiek egiten dutenean, arbelan jarriko dira eta komentatuko dira. Parte hartzaile bakoitzak orri bat izango du iritzi ezberdinak apuntatzeko. Gure lana, taldea gidatzea izango da: iritzia ematen animatu, besteenak komentatu, baretu, etc

2. JARDUERA

7 AKATSAK

HELBURUAK

Pornoak erakusten dituen jarrera sexualak benetako harreman sexual batekin parekatzea da. Aktibitate honen bidez taldeak jokabide sexualen inguruan duen iruditeria ezagutzea da. Taldearen adinaren arabera, erabiliko dugun materiala moldatu daiteke.

MATERIALA

- Fitxa: 7 akatsak
- Proiektorea
- Pantaila
- Aulikiak

DINAMIKA

Ekintza honetan bi aukera ditugu: eduki esplizitu sexuala erakusten duten argazkiekin lan egitea edo bideo pornografikoekin (biak batera erabili daitezke). Interesgarria litzateke harreman sexual eredu desberdinak erakustea gure lan esparrua handitzeko. Irudiak eta bideoak ikusi eta gero, parte hartzaile kopuruaren arabera, talde txikietan banatuko ditugu bakoitzaren usteak komentatzeko.

Komenigarria da jarduera hasi baino lehen, taldea erlazio sexualei buruz pentsaraztea (adin tarte txikikoak direnean bere lehenengo kontaktu sexuala irudikatzea). Ekintza honekin ere, "harreman sexuala" kontzeptua penetraziodun koitoarekin bakarrik ulertzeaz urrunduta nahi da.

* Harreman sexualari buruz hitz egiten dugunean ez gara bakarrik penetraziodun koituari buruz ari.

3. JARDUERA

GAUZEI BERE IZENAGATIK

HELBURUAK

Taldeak sexualitatearekin erlazionatutako terminologia ezagutzea, ikastea eta erabiltzea da.

DINAMIKA

Taldea gela osotik sakabanatu behar da guk esaldi batzuk esaten ditugun bitartean. Adibidez: txirla duten pertsonak nire eskumara kokatu behar dira. Taldea mugitzen den bitartean galdetu behar diegu txirla zer den eta beste izen batzuk dituen. Horrela, sexualitatearekin erlazionatutako hitzak landuko ditugu.

MATERIALA

- Gela zabala



ANEXO 1

¿ZER DA PORNOGRAFIA?



ANEXO 2

7 AKATSAK



- Argazkian zer ikusten duzu?
- Irudiak zer eragiten dizu?
- Uste duzu hau benetako bizitzan gertatzen dela?

ANEXO 3

GAUZEI BERE IZENAGATIK

Jarduerarako erabili dezakegun hitz zerrenda
(adinaren arabera moldatu dezakegu)

- Potxeta
- Pitilina
- Buztana
- Mameilak
- Xurgapena
- (...)

1. UNITATE DISAKTIKOA


material gehigarriak eta bibliografia

- **Pornoa VS Benetazko sexua, barazkiak eta frutekin azaldutako bideoa.**


<https://www.youtube.com/watch?v=WD9VYN5fWqc>

2. UNITATE DIDAKTIKOA

BAINA, PORNO KOMERTZIALA HEZIKETA EREDU KOMENIGARRIA DA?



porno eskola



www.pornoeskola.com



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

HAZIAK

2. UNITATE DIDAKTIKOA

BAINA, PORNO KOMERTZIALA HEZIKETA EREDU KOMENIGARRIA DA?

EDUKIAK

Gaur egungo gazteriak, Internetari esker du pornoa eskuragarri. Ondorioz, heziketa tresna batean bihurtu da. Alde batetik, ez dute lotsa pasatu behar pertsona heldu bati galdetuz. Bestetik, gazteek sexualitatearekin (sexuarekin konkretuki) duten lehenengo kontaktua, pornoa izan ohi da. Arazoa da, pornoa, bere sexualitatearen eraikuntzarako eredu desegokia dela.

Porno komertziala matxista da emakumeak objektu sexual bat bezala erabiltzen dituelako bere gorputza gauza bihurtzen, otzan bezala irudikatzen eta bere plazera kontuan hartu gabe.

Sexu harreman guztien helburua gizonezkoaren eiakulazioa da eta emakumearen eiakulazioa ez da serio hartzen eta antzezten da.

Pornoan ere, modak jarraitzen dira. Lehenengo argazki eta bideo erotikoek ile ugari erakusten zuten, gorputz eta genitaletan; bai eta bular eta gorputz arruntak. Gaur egun, ilea desagertu da eta bere lekua silikonak eta gim-

nasio gorputzek okupatu dute. Era berean, aktore guztiek super zakilak eta ezpain handi eta txiki berdintsuak dituzte.

Pornoak indarkeri eszenak erakusten ditu non emakumea iraintzen den, ez da baimenaren kultura helarazten. Beraz, pertsonen fantasia sexualak erakusten ditu pornoak, edo agian jarrera matxista horiek fantasia bezala saldu dizkigu onartuak izateko?

Aktore porno guztiak ipurdiko sexuarekin gozaten dutela badirudi ere, bizitza errealean emakume portzentu oso baxua praktikatu eta gozaten dute.

Arrazista eta homofoboa da; sexu lesbikoko eszenak gizon heterosexualak kitzikatzeko egiten dira, aktoreen arrazaren arabera egindako kategoriak daude eta LGTBQ+ edukientzako leku murriztua eskaintzen du.

HELBURUAK

- Sexismoa, pornoaren munduan salatzea
- Pornografian erakusten diren genero rola suntsitzea
- Sexuaren ikuspegi feminista eskaintzea
- Cisheteropatriarkal-norbatiboak diren usteak desmitifikatzea

1. JARDUERA

PORNOGRAFIAREN MITOAK

HEKBURUAK

Pornografiak zabaltzen dituen sexualitatearen inguruko jakintza okerrak desmitifikatzea da. Gainera, parte hartzaileen artean eztabaida sortzea bilatzen da. Jarduera honen edukiak, taldearen adinaren arabera moldatu daitezke interesatuta gauden esparrura bideratuz.

MATERIALA

- Gela zabala

DINAMIKA

Taldeak ilara bat osatu behar du eta guk barruko aldean kokatuko gara haiei begiratzen. Esaldiak banan-banan irakurriko ditugu eta parte hartzaileak ados edo kontra kokatu behar dira ilararen alde batera edo bestera mugituz.

2. JARDUERA

PANKARTAK

HELBURUAK

Pornoaren munduan aldatu nahi dena pankarta batzuen bidez aldarrikatzea da.

DINAMIKA

Taldea lan-talde txikietan banatuko dugu, pornoaren munduan gustuko ez dituzten gauzak pankarta baten bidez salatzen. Taldetxo bakoitzak bere pankartaren zergatia besteei azaldu beharko die.

MATERIALA

- Pankartentzako plastikoa edo papera
- -Errotulagailuak




ANEXO 1

PORNOGRAFIAREN MITOAK


- Pornografia gaur egungo heziketa sexuala da
- Sexua “zikina” izan daiteke baina bere baloreak ez
- Harreman sexual bat gizonetako eiakulatzen duenean bukatzen da
- Pornoan kondoiak ez dira beharrezkoak benetakoa ez delako
- Porno matxista, arrazista eta homofoboa da
- Pornografiak kitzikatu behar gaitu
- Emakumeak orgasmora heltzen dira penetrazioaren bidez
- Pornoan baimendutako erlazio sexualak erakusten dira
- Porno komertziala ez da komenigarria gure fantasia sexualen irudikeria osatzeko

3. UNITATE DIDAKTIKOA

FANTASIA SEXUALEN IRUDITERIA ERAIKITZEKO KOMENIGARRIA DA?



porno eskola



www.pornoeskola.com



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

HAZIAK

3. UNITATE DIDAKTIKOA

FANTASIA SEXUALEN IRUDITERIA ERAIKITZEKO KOMENIGARRIA DA?

EDUKIAK

Pornoak erakusten dituen ereduak, jarrerak eta baloreak bere fantasia sexualen irudikeria eraikitzeke erabiliko dituzte nerabeek. Horregatik, garrantzitsua da eratzten dituzten eske-ma horiek osasuntsuak izatea gerora izango dituzten harremanak errespetuan eta berdintasunean garatzeko.

Pornografian erakusten diren sexu harremanak ez dira erreleak ez egunerokoak. Koi-tozentrikoak dira penetrazioan arreta jartzen dutelako, beste praktika sexualak alde batera utziz. Ez du errespeturik emakumeekiko eta ez du onarpenaren baloreak transmititzen. Ez du segurtasun sexuala sustatzen. Aktoreen portzentu oso baxu batek kondoiak erabiltzen ditu eta inoiz ez da bere erabilpena negoziatzen eszena erreal bat izango balitz bezala. Akto-reak batera iristen dira orgasmora baina bi-zitza errealean, askoz zailagoa da hau lortzea pertsona bakoitzak bere kitzikapen denborak baititu.

HELBURUAK

- Sexismoa pornoaren munduan salatzea
- Pornografian erakusten diren genero ro-lak suntsitzea
- Sexuaren ikuspegi feminista eskaintzea
- Cisheteropatriarkal-norbatiboak diren usteak desmitifikatzea

1. JARDUERA

ZER IZANGO DA?

OBJETIVO

Parte hartzaileek sexualitatearen inguruko hitzak ezagutzea du helburu.

MATERIAL

- Kontzeptuak lantzeko fitxak

DINAMIKA

Parte hartzaileak bi taldeetan banatuko ditugu eta kontzeptu desberdinak dituzten fitxak banatuko dizkiegu. Ekintzaren helburua, kontzeptuak mimikaren bidez antzeztea da kontrako taldeak asmatzeko. Asmatu edo ez, kontzeptu zailenak aztertuko dira, nola antzeztu diren, neska batek edo mutil batek antzeztearen ezberdintasuna, ...

2. JARDUERA KARTA-SORTA

OBJETIVO

TSG eta planifikatu gabeko haurdunaldien inguruko informazioa zuzena den edo ez aztertzea da.

MATERIAL

- Karta-sorta

DINÁMICA

Taldea pertsona gutxiko lan taldeetan banatuk da (parte hartzaileen kopuru totalaren arabera) eta karta-sorta, bi multzotan banatzea eskatuko zaie: batean, egia den informazioarekin eta bestean, gezurra denarekin. Karta guztiak antolatzen direnean, banan-banan altxatuko ditugu bakoitzean agertzen den informazioa komentatuz.



3. JARDUERA NEGOZIATZEN

HELBURUAK

Harreman sexualak izan aurretik (penetrazioarekin edo penetraziorik gabe) kondoiaren erabilera negoziatzen duen bikote bat antzetztea da.

DINAMIKA

Taldea binaka banatuko da, bakoitzaren txartelak azaltzen duen kasua antzetzeko.

MATERIALA

- Rol-playingarentzako bi aulki
- Kondoi bat



ANEXO 1

ZER IZANGO DA?

**SEXUALITATEA
SEXUA
BISEXUALITATEA
EIAKULAZIO FEMENINOA
TRANSEXUALITATEA
ALUA
ESPERMATOZOIDEAK
BIRGINITATEA
TRAVESTISMOA
HILEKOA
ASEXUALA
EROTIKA
BAIMENA**

* Estas son algunas de las palabras que podemos usar para la actividad

ANEXO 2

KARTA-SORTA

- TSG-ak koito baginalaren bidez bakarrik transmititzen dira
- Pertsona batek TSG bat duela jakin dezake
- Pilula antikonzeptiboa erabiltzen bada TSG bat izateko arriskurik ez dago
- TSG-ak semenaren bitartez bakarrik transmititzen dira
- Bakarrik promiskuoak diren pertsonak edo homosexualak kutsatzen dira
- TSG-ak ipurdiko sexua edo sexu orala praktikatzen saihesten dira
- GIB eta HIESA gaixotasun berdinak dira

* Hauek dira karta-sorta sortzeko erabili daitezkeen esaldi batzuk

ANEXO 2

NEGOZIATZEN

- **1. Kasua:**

Bikote heterosexual batek koitodun harremanak mantendu nahi dituzte. Mutilak ez du kondoia erabili nahi, deserosoa dela diolako baina neskak bai.

- **Caso 2:**

Orain dela gutxi ezagutu den bikote batek sexu orala izan nahi du. Ez dakite ziur kondoia erabili behar duten edo ez.

- **Caso 3:**


Bikote homosexual batek koitodun harremanak mantendu nahi dituzte. Bietako batek ez du kondoia erabili nahi haurdun gelditzeko arriskua ez dutelako.

- **Caso 4:**


Bikote heterosexual batek koitodun harremanak mantendu nahi dituzte. Mutilak kondoia erabili nahi du baina neskak hilekoa duenez ez du erabili nahi haurdun gelditzeko arriskurik ez dagoelako uste baitu.

* Hauek dira erabili daitezkeen kasu batzuk

UNIDAD DIDÁCTICA 4 PORNO FEMINISTA



porno eskola



www.pornoeskola.com

4. UNITATE DIDAKTIKOA PORNO FEMINISTA

EDUKIAK

Porno feministak harreman sexual arruntak eta gorputz naturalak erakusten ditu. Emakumearen sexualitateari eta plazerari ikusgaitasun handiagoa ematen dio. Bere helburu nagusia bidezkoa, berdintasunean oinarritua eta irekia den pornografia sortzea da.

Porno eredu hau, sexua naturalizatzeko, emakumearen sexualitatea irudikatzeko eta gorputz aniztasuna indartzeko balio du.

Feminismoa, pornoaren munduan beharrezkoa da; izan ere, pornoa, balio matxistak transmititzen ari den heziketa eredu bat da.

HELBURUAK

- Pornografia, heziketa sexu-erako tresna bezala erabiltzea
- Pornografiaren erabiltzaileak berrezitzea
- Eduki pornografikoetaz jabetu eta material pedagogiko bihurtu
- Sexismoa pornoaren munduan salatzea
- Pornografian erakusten diren genero-rolak suntsitzea
- Sexuaren ikuspegi feminista eskaintzea
- Cisheteropatriarkal-normatiboak diren usteak desmitifikatzea

1. JARDUERA

MUTILA IZANGO BANINTZ

HELBURUAK

Emakumea pornoaren munduan, argazkilaritza erotikoan edo iragarkietan nola irudikatzen den aztertzea da. Emakumearen irudia gizona gizonarekin ordezkatzeko, eta modu horretan, matxismoa salatuz.

DINAMIKA

Taldea, emakumeen argazki erotikoak aztertuko ditu bere gorputzen irudikapenean arreta jarri. Ondoren, jarrera berbera duten gizonen argazkiak erakutsiko zaizkie; bai eta gizarteak ezarritako edertasun kanonak irudikatzen ez dituzten emakumeen argazkiak ere.

MATERIALA

- “Mutila/neska izango banintz...” fitxa
- Proiektorea
- Pantaila
- Aulkiak

2. JARDUERA

CAMBIEMOS EL GUIÓN

HELBURUAK

Pelikula pornoen gidoietan matxismoa antzematea eta aldatzea da.

DINAMIKA

Parte hartzaileak lan-talde txikietan banatuko ditugu eta pelikula porno baten gidoia pasatuko diegu. Jokabide matxistak aurkitu beharko dituzte eta gidoia ikuspegi feminista batetik berridatzi.

MATERIALA

- “Gidoia aldatuz” fitxa
- Mahaiak
- Aulkiak
- Proiektorea
- Pantaila

ANEXO 1

MUTILA IZANGO BANINTZ...



* Jarduerarako erabili daitezkeen irudi batzuk

ANEXO 1

GIDOIA ALDATUZ

Maitalea bere ahots gogor eta zehatzarekin otzantxoari altxatzeko eta kristalaraino joateko esaten dio. Zigortuta dago eta bere titiak kristalaren hotza nabaritzen dute.

Otzantxoa urduri dago bere lehenengo aldia bait da horrelako esperientzia batean.

Bere Maitaleak atzetik besarkatu dio eskuak bere sexuraino jaisten eta esanez:

- Gau honetan nirea izango zara. Niretzako bakarrik, etxe honen hamar leku desberdinetan. Horretarako guztiz otzana izan beharko zara.

Hitz hauek esanda Maitaleak lepoa musukatzen dio, bere gorputz osoa laztanduz eta zakilarekin ipurdian kolpetxoak emanez.

Bapatean, Maitaleak Otzantxoa altxatu eta kristalaren kontra penetratzen du, ipurdian txaloak emanez eta ongi portatzeko esanez.

4. UNITATE DIDAKTIKOA

Material gehigarria eta bibliografia

- Patricia Sornosaren monologo feminista

<https://www.youtube.com/watch?v=bvYtxYjxKNQ&t=132s>